



Leiho bat

BIODIBERTSITATEARI

ARGAZKIAK: XABIER MINA EDERRA



BIOANIZTASUNA.COM webgunea biodibertsitateari behatzeko leiho bat da. Ikaste-txeetan jartzeko diseinatu dago leihoa. “Hezkuntzaren ikuspuntutik pentsatuta dago, baina, hala ere, itsasoa gustuko duen edonork gozatzeko modukoa da”, dio Xabier Mina webgunearen egileak. Izan ere, oraingoz, urpekoak dira leiho-tik ikusten diren paisaiak.

Itsas zientzietan lizentziaduna da Xabier Mina Ederra, eta “geroztik itsasoarekin lotuta egoten saiatu naiz egin ditudan lanetan”. Ikerketan urte batzuk egin ondoren, hezkuntzara pasatu zen; DBH-ko irakaslea da, Barañainen. “Beti egon naiz itsasoan argazkiak egiten, eta azken urteetan bideoak ere bai. Material interesgarri asko nuen, eta ikasleekin



Xabier Mina Ederra, Bioaniztasuna.com webgunearen egilea.



Karabela portugesa (*Physalia physalis*) bela itxurako egiturari esker itsaso eta ozeanoetan zehar zabaltzen da. Erroek zenbait metroko luzera izan dezakete, eta oso ziztada mingarriak eragin ditzakete.



Itsas izar arantzadun gorriak (*Echinaster sepositus*) argitasun gutxiko inguruneak ditu gustuko, zuloak eta arrailak, esaterako.



Karraspio begiubel arrak (*Symphodus melops*) udaberrian habia eraikitzen du, alga zati txikiak pilatuz.

erabiltzeko prestatzea pentsatu nuen”. Hala, webgunea DBHko ikasleei zuzenduta dago. Argazkiz eta bideoz osatuta dago, eta bideoekin lan egiteko arriketak ere proposatzen ditu.


Biodibertsitatearen leiho horretatik Kantauri itsasoari begira jarri gara erreportaje honetan. Izan ere, mundu osoko irudiak dauden arren, Kantauri itsasoari garrantzia berezia eman dio Minak webgunean. Hala, gure itsasoko biodibertsitateari eskainitako atalean, arrain, krustazeo eta moluskuen argazkiak daude, latinezko, euskarazko eta gaztelaniazko izenekin.

“Gure kostaldeak berezitasun bat dauka —dio Minak—; latitudea kontutan hartuta, alga arreek eta berdeek izan behar ko lukete nagusi, Frantzia edo Galizian gertatzen den moduan, baina hemen alga gorriak dira nagusi. Temperatura espero litekeena baino pixka bat altuagoa delako gertatzen da hori”. Bizkaiko golkoaren ezaugarriengatik, inguruko urak baina epelagoak dira bertakoak. “Anomalia bioklimatiko hau ez da algetara mugatzen; gainerako maila trofikoei ere eragiten die. Ondorioz, bitxia izan arren, gure kostaldeko hainbat animalia Mediterraneon edo Marokoko kostaldean ere arruntak dira”.

Bideoen atalean ere bada Euskal Herriko uretan grabatutako bat, irudi koloretsu eta ikusgarriz betea. Eta aipagarria da, baita ere, ezezagunak bezain bitxiak diren lanproien bideoa, Bidasoa ibaian grabatua.



Anemona arrunta (*Anemonia sulcata*) oso ugaria da gure kostaldean, eta kolonia zabalak osatzen ditu.



Itsas trikuak bentosa txikiz osaturiko aparatu anbulakralari esker mugitzen dira.



Nekora (*Necora puber*) azkarra da, eta berehala egiten du ihes korrika edo atzeko hankekin igerian.



Itsas kabra (*Scorpaena porcus*) ezin hobeki kamuflatzen da algaz jositako hondoetan.



Itsas izar arruntaren (*Marthasterias glacialis*) arantzak eta oin anbulakralak.



Olagarroa (*Octopus vulgaris*) ornogabe adimentsuena dela jotzen da.



Sepia (*Sepia officinalis*) arra eta emea elkarrekin ikusten dira ugalketa-sasoian (neguaren bukaera-udaberriaren hasiera).

Lanean jarraitzeko asmoa du Minak, eta lehorreko biodibertsitateari begira dago azkenaldian. “Kontuan izanda urtean zehar nola egoten den Kantauri itsasoa, hasi naiz mendi-aldean ere bideoak eginen. Oraindik ez dut bideorik jarri, baina urte osoa daramat Nafarroako pagadietan filmatzen. Joan naiz urte osoan ikusten nola doazen aldatzen pagadia, eta hango animaliak”.

Minak aitortzen irudi horien atzean “lan izugarria” dagoela. “Baina, gustura egingdako lana da, beraz, ez da lana”, argitu du. “Oraintxe, klasea bukatu eta, itsasoa oso bare dagoenez, banoa urpera”. Seguru kamera ez duela urrun izango. ●



Kabuxak arrainen artean kuxkuxeroenak dira, beldurrik gabe hurbiltzen zaizkigu, eta beren begi handiekin begiratzen gaituzte. Argazkiko espezia: *Parablennius gattorugine*.



Zapoa (*Lophius piscatorius*) hondoan kamuflatuta ematen du eguna. Bizkar-hegatsaren erradioetako bat luzeagoa dauka eta helburuarekin etengabe mugitzen du harrapakinak erakartzeko.



Udaberrian, itsas lanproiak (*Petromyzon marinus*) ibaietan barneratzen dira arrautzak errutera. Argazkian, arra eta emea Bidasoa ibaian habia eraikitzen.



Zarauzko hondartzara iritsitako katxalote bat (*Physeter macrocephallus*).